

[Eusk/Cast] Hay que detener toda actividad económica no esencial

CNT SINDIKATUA :: 23/03/2020

Mientras no se asegure la salud de los y las trabajadoras y sus familias, hay que detener toda actividad económica no esencial

[Euskara]

Funtsezkoa ez den jarduera ekonomiko oro geldiarazi behar da

«Ezin da langileak eta haien familiak arriskuan jartzen jarraitu, gutxi batzuek kutxa egiten jarrai dezaten», salatu du CNTk. Erakunde anarkosindikalistak adierazi du lotsagarria dela gobernuen zeregina, Eusko Jaurlaritzarena ere, «patronalaren argumentuak bereak balira bezala jarduten baititu»

«Langileen eta haien familien osasuna ziurtatzen ez den bitartean, funtsezkoa ez den jarduera ekonomiko oro geldiarazi behar da», adierazi du CNTk. Errealitatea da, gaur egun, kutsatzeko arriskurik gabe lanera joan ahal izateko baldintzak ez direla ematen, eta ez dira emango ere. Horregatik, zentral anarkosindikalistak funtsezkoa ez den jarduera ekonomiko oro gelditzea eskatzen du, hori baita langileen eta haien familien osasuna babesteko modu bakarra.

Halaber, bere haserrea agerrarazi du Eusko Jaurlaritzak «Industriarako koronabirusaren aurrean jarduteko protokoloa (kovid-19)» argitaratutako dokumentuaren aurrean. Protokolo horrekin, «Lakuak bereak bezala hartzen ditu Confebasken proposamenak, nahiz eta hori, tamalez, ez den berria». Hau da, enpresen irabaziak herritarren osasunaren aurretik jartzen ditu. «Langile guztiak babestu ezin badira, enpresa itxita mantentzea litzateke gutxienekoa», azpimarratu du CNTk.

Halaber, erkidegoetako eta gobernu zentraletako gobernuai gogorarazi die Italian funtsezkoa ez den jarduera oro ixteko agindua eman dela; eta CNTk uste du hori egin behar dela.

Azkenik, langileei dei egiten die euren esku dauden neurri guztiak har ditzaten, ezinezkoa bada %100ean «euren osasuna ziurtatzea eta ez kutsatzea». Pertsonen osasuna enpresen irabazien gainetik egon behar da beti, CNTk adierazi duenez.

[Castellano]

Hay que detener toda actividad económica no esencial

“No se puede seguir exponiendo a las trabajadoras y a sus familias para que unos pocos sigan haciendo caja”, ha denunciado CNT. La organización anarcosindicalista manifiesta que es impresentable el papel de los diferentes gobiernos, incluido el ejecutivo vasco, “tomando como propios los razonamientos de la patronal”

“Mientras no se asegure la salud de los y las trabajadoras y sus familias, hay que detener toda actividad económica no esencial”, ha dicho CNT. La realidad es que, en la actualidad, no se dan las condiciones, ni se van a dar, de poder ir a trabajar sin riesgo de contaminarse. Es por ello que la central anarcosindicalista exige que se detenga toda actividad económica no esencial, ya que es la única manera de proteger la salud de los y las trabajadoras y sus familias.

También ha mostrado su indignación ante el “Protocolo de actuación frente al coronavirus (covid-19) para la industria” publicado por el Gobierno Vasco. Con este protocolo, “Lakua toma como suyas las propuestas de Confebask, algo que, tristemente, no es nada nuevo”. Esto es, antepone los beneficios empresariales ante la salud de la ciudadanía. Lo mínimo “sería que, si no se puede proteger al 100% a la plantilla, se mantenga cerrada la empresa”, ha resaltado CNT.

También recuerda a los gobiernos autonómicos y central que en Italia ya se ha ordenado el cierre de toda actividad no esencial; “algo que desde CNT, creemos que hay que llevar a cabo ya”.

Por último, hace un llamamiento a las plantillas para que tomen todas las medidas que estén en su mano si no es posible asegurar al 100% “su salud y no contagiarse”. La salud de las personas siempre ha de estar por encima de los beneficios de las empresas, ha declarado CNT.

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-hay-que-detener>